



# aballarri

## EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## EGAPE IKASTOLA, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOTIK URNIETARROI EGAPE IKASTOLA, LA IKASTOLA PÚBLICA DE URNIETA A LOS URNIETARRAS

*La Ikastola Egape lleva años trabajando para ofrecer una educación de calidad a todos y todas las urnietarras. Y nuestra Ikastola tiene el firme compromiso de seguir trabajando en ello.*

*Hemos visto crecer a los urnietarras, construyendo el futuro. Acompañaremos también a los jóvenes urnietarras que están ahora con nosotros a hacer su camino. Con el euskera y la cultura vasca como base se educarán en igualdad y diversidad para que en el futuro sean ciudadanos libres, críticos, participativos y profesionales.*

*Nuestra educación trata de dar respuesta a las necesidades que surgen en el día a día y miles de estudiantes que han estudiado en Egapen han salido al mundo dispuestos a afrontar los retos del futuro.*

*Seguiremos trabajando para que el nuevo edificio de la ESO y el diseño del nuevo espacio inclusivo de Egape Ikastola se conviertan en realidad.*

*En este nuevo curso hay un cambio en la dirección de la ESO, ya que Mirian Larrinaga, que ha ejercido de secretaria en los últimos años, ha cedido el testigo a Xabier Maritxalar que junto a Amaia Amutxastegi y Nekane Legarreta formarán el nuevo equipo directivo de ESO.*

*Queremos mantener un contacto directo con Urnieta por lo que las puertas de Egape están abiertas para aclarar dudas, preguntas o aportaciones.*

Urteak dira Egape Ikastola urnietarroi kalitatezko hezkuntza eskaintze aldera lanean diharduela eta horretan jarduteko konpromezu irmoa du gure Ikastolak.

Urnietarrak hazten eta hezten ikusi ditugu, etorkizuna eraikitzen. Gurekin diren gazte urnietarrek ere, euren bidea egiteko bidelagun izango gaituzte. Euskara eta euskal kultura oinarri, berdintasunean eta aniztasunean hezikira dira, etorkizunean herritar askeak, kritikoak, partehartzaileak eta profesionalak izan daitezzen.

Gure hezkuntza sortzen diren beharrei erantzuten saiatzen da unean-unean ateratzen diren berrikuntzei so beti ere. Egapen ikasi duten milaka ikasle etorkizuneko erronkei eusteko prest atera dira mundura.

Azken urteetan aldari nagusi izan dugunarekin ere lanean jarraituko dugu, DBHko eraikin berria errealtitate izan dadin gure ahaleginik handienak egingo ditugu. Baita Egape Ikastolaren jolas eremu inklusiboaren doikuntzan ere.

Ikasturte berri honetan, DBHko zuzendaritzan bada aldaketa, azken urteotan idazkari lanetan jardun duen Mirian Larrinaga, lekukoa eman baitio Xabier Maritxalarri. Eta bera izango da Amaia Amutxastegi eta Nekane Legarretarekin batera, datozen urteotan DBHko gidaritza izango dutenak.

Herritarroi zuzeneko harremana ematea da gure nahia eta horretarako jakin, Egapeko apeak zabalik dituzuela zalantza, galdera edota ekarpenak egiteko.





# PROYECTOS CREADOS EN LA IKASTOLA

En Egape Ikastola llevamos años desarrollando proyectos que han surgido en ella. En estos dos últimos cursos, aunque los hemos tenido que suspender, este curso hemos vuelto a retomarlos con ganas.

Una de ellos es el proyecto "Familias en la Ikastola". Las familias de nuestro alumnado tienen las puertas de Egape abiertas, por lo que suelen ser invitadas a las aulas de sus hijos e hijas a realizar diversas actividades.

También tenemos el proyecto "Conociendo los montes de la zona". Este es un proyecto creado con el objetivo de preservar la afición del montañismo y conocer los montes y los espacios naturales que nos ofrece el pueblo, en los que participan todos los niveles de la EP.

Tenemos claro que el euskera también tiene cabida fuera de la ikastola por lo que contamos con el proyecto "Urniarra, gaztea eta euskalduna". Mediante esta iniciativa pretendemos que nuestro alumnado conozca vivencias y experiencia del día a día de otros jóvenes con el euskera.

Y por último, también tenemos un nuevo proyecto que hemos puesto en marcha este curso. Con la intención de ir renovando los espacios de Egape y conscientes de la importancia que tiene la entrada en la Ikastola, los alumnos y alumnas de la ikastola adornarán nuestra entrada con creativas obras creadas por ellos.

Todos estos proyectos son propuestas para enriquecer el día a día, iniciativas que este curso hemos retomado con ganas y que pensamos seguir manteniendo de ahora en adelante.



## IKASTOLAN SORTUTAKO PROIEKTUAK

Egape Ikastolan urteak dira, bertan sortuak diren proiektuak garatzen ditugula. Azken bi ikasturte hauetan, bertan behera utzi ditugun arren, aurtengo ikasturtean gogoz ekin diegu berriro ere.

Azken urteotan gero eta partehartze handiago duen "Familiak Ikastolan" dugu horietako bat. Gure ikasleen familiak Egapeko ateak zabalik dituzte eta hori horrela, gombidatuak izan ohi dira euren seme-alaben geletara, era anitzeko ekintzak burutzen.

Badugu "Inguruko mendiak ezagutz" proiektua ere. Urnietan beti egon da mendizaleasuna errrotuta eta zaletasun hori zaintze aldera eta herriak eskaintzen dizkigun natur eremuak eta hain kuttunak diren mendiak ezagutzeko asmoz sorturiko proiektua da, LHko maila guztiak parte hartzen dutena, hain zuzen ere.

Euskara da gure hizkuntza eta euskarak ikastolatik kanpo ere tokia baduela ohartarazi nahiean, euskararekin izandako biziaren azaldu eta egunerokoan euskaraz jardutea posible dela helburu duen "Urniarra, gaztea eta euskalduna" ekimena ere eskuartean dugu.

Eta azkenik, aurtengo ikasturtean abian jarri dugun proiektu berri bat ere badugu. Egapeko espazioak biziak izan asmoz eta Ikastolako sarrerak duen garrantzia jabetuta, ikasleek euskaraz sortutako sormen lanekin jantziko dute gure sarrera.

Egunero jarduna aberasteko proposamenak dira guzti hauek, bertan sortuak bertakoentzat. Aurtengo ikasturtean ere gogoz heldu diegu proiektu guzti hauei eta aurrerantzean ere bide berean jarraitzeko ilusioarekin ekin gainera.





# EUSLIDERAK

Egape Ikastolaren helburu nagusietako bat bere sorreratik hasita euskara eta euskal kulturaren transmisión eta erabilera indartzea izan da. Horretarako betidanik ekimen eta jarduera asko eta asko egin izan ditugu gure helburua betetzeko.

Azken urte hauetan, programa berri bat martxan jarri dugu ikasleak protagonista bihurtzen ditugularik, EUSLIDERAK hain zuzen ere.

Alfabetatze Euskaldunten Koordinakundea (AEK) eta Urnieta Udalaren laguntzarekin, orain dela lau ikasturte Egape Ikastolan Eusliderrak tailerra martxan jarri genuen. Tailer honen xedeak, hizkuntzekiko jarrerak lantza, eraldaketa sustatzea, portaera berriak sortzea eta hizkuntza-lidergoa indartzea dira, besteak beste.

Aurten ere urte bete gazteago diren ikasleen irakasle bihurtu dira Eusliderrak, berdinengandik ikasiz eta berdinei irakasteak duen eraginkortasuna erakutsiz. EUSLIDER taldeak euskaraldian aktibo izan ditugu jardueren antolaketan parte hartuz.

Egindako lana emankorra izan dadin urnietar guztiak euskal kontzentzia piztea ezinbestekoa dugu!!!

Uno de los principales objetivos de Egape Ikastola ha sido asegurar la transmisión y el uso del euskera y la cultura vasca desde su fundación. Para ello siempre hemos realizado muchas iniciativas y actividades con el fin de cumplir este objetivo.

En colaboración con la Coordinadora de Alfabetización y Euskaldunización (AEK, en euskara) y el Ayuntamiento de Urnieta, hace cuatro cursos pusimos en marcha el taller Eusliderrak. Con este taller pretendemos fomentar entre el alumnado una actitud positiva hacia las diferentes lenguas, reforzar el proceso de transformación lingüística, crear nuevos comportamientos e impulsar la figura del liderazgo lingüístico.

Un año más, este grupo se ha convertido en formador del alumnado más joven, demostrando la eficacia de enseñar y aprender entre iguales. El grupo EUSLIDER ha participado activamente en la organización de la campaña euskaraldia de la Ikastola.

¡¡¡Para que el trabajo realizado sea fructífero es imprescindible despertar la conciencia vasca de todos y todas las urnietarras!!!





# EGAPE

Urnieta  
ikastola  
publikoa

## MATRIKULA MATRÍCULA

13-24  
OTSAILA  
FEBRERO



### BILERAK ETA ATE REKIAK REUNIONES Y PUERTAS ABIERTAS

7

Otsaila | 2 URTE | 17:00  
Febrero | 2 AÑOS | Etxeberri

8

Otsaila | DBH | 17:00  
Febrero | ESO | DBH eraikina

HH-LH



egape@egape.eus



943009275

DBH



egapebhi@egape.eus



943899425

[www.egape.eus](http://www.egape.eus)



KUDARTEA  
AURERATUARI  
DIPLOMA

baikara  
ehige



Etxeberri 3/4, Urnieta.  
943 00 95 58  
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.  
943 00 92 75  
egape@egape.eus

Azkorte z/g, Urnieta.  
943 89 94 25  
egapebhi@egape.eus

Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria

